

Udalbatzaren osoko bilkura

Iruñeko Udalaren Osoko Bilkura alkateaz eta 26 zinegotzi hautetsiez osatua dago. Alkatea da bilkura-burua. Osoko bilkurak hil bakoitzaren lehen ostegunean egiten dira, 16:30ean hasita, eta hil bakoitzaren hirugarren ostiralean, 9:30ean. Abuztuan ez da osoko bilkurarik egiten.

2014an, **18 bilkura** egin ziren. Osoko bilkurak jendaurrekoak dira; horrenbestez, nahi duen jende oro joan daiteke bilkuretara. Osoko bilkurak, gainera, Iruñeko Udalaren webgunearen bidez ematen dira (www.pamplona.es), eta aurreko bilkurak kontsultatzeko aukera ere badago. Urriaren 2an egin zen lehen osoko bilkura elektronikoa: gai-zerrenda eta espedienteak guztiz digitalizatuak ziren eta eskuragarri zeuden, gailu digitalen bidez, alkatearentzat, zinegotzientzat eta Osoko Bilkurako idazkariarentzat, baita urruneko postuetatik ere.

Bilkurak	2010	2010	2012	2013	2014
Ohikoak	15	10	15	12	17
Ezohikoak	1	7	3	7	1
Ezohiko eta premiazkoak	3	1	-	-	-
GUZTIRA	19	18	18	19	18
Hartutako erabakiak	245	208	247	241	189

Galería fotográfica:



